

Sistema Txertatuen Simposiuma Ganten.

2010/11/03

Urriaren 26 eta 27an ITEA2 eta ARTEMISek elkarlanean antolatutako sinposium bat egin zen Ganten (Belgika). 600 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten eta 75 proiektu erakutsi ziren. Proiektuek sistema txertatuen ikerketan bikaintasuna eta berrikuntza bateratzen zituzten. Mondragon Unibertsitateak erakutsi ziren hiru proiektutan parte hartu zuen:

- EVOLVE: Evolutionary verification, validation and certification.
- EDIANA: Embedded Systems for Energy Efficient Buildings.
- pSHIELD: pilot embedded Systems archItecturE for multi-Layer Dependable Solutions.

